



# ANAITASUNA

AÑO II—Núm. 21

Suplemento a la Hoja  
"ANAITASUNA" de Guipúzcoa

Marzo 1955

## GARIZIMA

Penitentzia ta mortifikaziñozko denporea. Sasoi onetan, mundu guztiko kristiñauak, barau ta bigilien bitartez, mortifikau egiten dabe euren burua; eta gorputza astindurik, iratzarri ta bizkortu egiten dabe euren fedea.

Beste ezetan baiño, arima barruko biztualdi onetan dago garizimearen baliorik aundiena. Jainkoak gurago ditu mortifikaziñoaren bitartez egiten doguzan fede biozkadak, laz-tasanak eurak baiño.

Txikia izanarren, penitentziaren bat fedez egiten dogunean, benetan siñistuten dogu gure pekatuakaitik mundu onetan naibageak eta ezbearrak igaro bear ditugula, gure nekealdietan Kristo alboan daukogula, gure salbagillea bera dala, beragaz batera sufridu bear dogula, gure mortifikaziño mirrizak beraren sufrimentuen balioa artzen dabela, gure pena ta dolore guztiak Jesukristorenakaz batera Aita Jainkoari eskiñi bear deusaguzala.

Aintxiñako gizaldietan, garizima denporan penitentzia aundiak egiten zituen kristiñauak. Baiña baita orduan-bere, arima barruko penitentzia zan euren arazorik beifñena, euren zeregiñik printzipalena.

Sasoi orretan, sarriago batu oi zirean eleizetan, sarriago entzun oi zituen sermoiak, bakeak egin, zorrak ordaindu, pekatuak autortu.

Denpora orretan, gogoz ikasten zituen kristiñau erlegiñoeko egiak, ardurarik aundienagaz atonduten eben euren burua, Pazko egunez bateo santua artzeko edo lenengo komuniñoa egiteko.

Aintxiñako kristiñauak baiño gaitxiagoak garezalako-edo, oraingo bizibideak lengoak baiño geiago nekatuten dabelako-edo, gorputzeko penitentzia askoz gitxiago egiten dogu gaurko egunean.

Ori dala-ta, aparteko alegiña egin bear dogu garizima denporan, arima barruko mortifikaziñoak egiteko, eta gure penitentzia txikien bitartez gure kristiñau fedea bizkortuteko.

Siñistu, gure pekatuakaitik zerbait sufridu bear dogula. Siñistu, gu kristiñauok mundutarrak ez gareala, eta munduko bizimoduari ezin beti jarraitu geinkiola. Siñistu, Kristo gure Buruaren antzekoak izan bear dogula, eta beragaz batera Aita Jainkoaren asarrea baretu bear dogula.

Gure kabuzko penitentziarik egiten ez badogu-bere, eskiñi deiogun Jainkoari gure egunoroko bizitza garratza. "Zorionekoak pobreak, zorionekoak naibagetuak, zerna eurenada-ta." Gure arteko geienak egunean eguneango lan gogorretik bizi gara, eta gaixoak edo ezbearrak sarri askotan joten dau gure etxeko atea. Zorionekoak gu, baldin gure derrigorreko sufrimentuak fede biziz eroaten badoguz!

# San Malakias

San Malakias, Irlandako Obispo beneragarria, Frantziara joan zan bein, San Bernardori bisita bat egitera. Zoritxarrez, gaixotu egin zan bidean.

Komentura eldu zanean, deitu zituan Fraille guztiak bere gelara, ta esan eutsen: "Nire biotzeko anaiak, laster urten bear dot mundu onefatik eternidadera; eta eleizakoak ainbat ariñen artu gura dodaz, ara joateko bidaririk onena orixe da-ta. Azken komuniñoa ta Untziño Santua: ona emen nire biotzeko gurarial!"

Asi zirean Frailleak gaixoaren kuartua atonduten, sakramentuak bertara ekarteko asmoaz Santuak ez eutsen itxi baiña.

Jagi zan ogetik, eta zelan edo alan joan zan eleizara, eta antxe artu zituan deboziñoz beterik azken sakramentuak.

Illunabarrean, oso txarto jarri zan, eta bere ondoan egozneri auxe esan eutsen, azkenengo agurra baillitzan:

"Poztu zaiteze nire eriotzeagaitik, eta erregutu eizue nire alde ilten nãizanean. Neuk-bere, zuen alde otoitz egingo dot Jainkoaren aurrean Nire fede ta uste osoa beti Jainkoagan ipiñi dot. Jainkoagaz batera beti maitte izan zaituet, nire anaia laztanok. Eta gure arteko maitasuna ez da iñoiz ilko."

Gaberdi inguruan, polito polito ilzan, 1148'garren urtean, Domusanturu egunean.



## AZKEN OLEAZIÑOKO SAKRAMENTUA

1.—Zetarako da Untziño Santua edo Azken Oleaziñoa?

2.—Nun berba egiten dau Eskritura Santuak Azken Untziñoaren gaiñean?

3.—Zer egiten deutso arimeari Untziño Santuak?

4.—Esan, emen diñoguna egia danentz:

a) Azken Oleaziñoa ez litzakio emon bear, oraintxe bertan ilten dagoanari baiño.

b) Untziño Santuaren birtatez, gorputzeko osasuna, konbeni bada, derrepentean, millagru moduan, lortuten da.

5.—Urliak, eriotzako arriskuan egoalakoan, Azken Oleaziñoa artu dau. Baiña benetan ez eukon ilteko peligrurik. Sakramentu orrek balio ete deutso?

(Erantzupenak azkenengo orrialdean)

\* \* \*

"Gure Salbatzaillea, osatu eizu, arren, Espiritu Santuaren graziaz, gaixo onen gartxa; osatu bere zauriak, parkatu pekatuak, aldendu eiozuz gorputz eta arimako gatx guztiak; ta zure errukiz, emoioku gorputz eta arimako osasun betea, zure ontasunez bizkorturik, bere lanbidera biurtu daiten."

(Untziño Santuko otoitza)

# Illeko Ipuina

## OTSOA ARTZAIN

Bein otso bat bizi ei zan Euskalerriko mendi baten gainean. Zarraren zarraz, anak okertuten asi jakozan eta agiñak jausten. Gazte denporan kazari bizkorra izan zan: amaikatxu ardi ta bildots narrutu ta jan zituan! Baiña zartzaroa, gauza txarra da danentzat, batez-bere eiztarientzat.

An egoan otso gaixoa, goseak ilda, azurrak narruaren barrutik agiri; pentsetan ziarduan, besterik ez bazan bere, artxo txiki bat atrapetako asmoz. Baiña otso urrunetik ikusi orduko, ardiak eta bildotsak iges egiten eben; eta gainera, artzaiñak eta txakurrak ez eutsoen itxiten, berak gura ebana egiten. Zer egin biziteko?

Ona emen gogora etorri jakona. Egun baten, artalde guztia gerizpean etzunda lo egoala—ardiak lo, artzaiña lo, txakurrak lo—, geldiro geldiro urreratuten da; ostuten deutsoz artzaiñari soñekoak, oiñetakoak eta makillea; jazten ditu artzaiñaren piztiñak; eta zutunik, gizon batek legez beso biak makillearen gainean ipiñita, bere kolkoari esaten deutso:

—Au bai burutasunal Eta oraiñarte zelan ez deutso beste iñori senak emon, otso batentzat, oparo ta bildur barik biziteko, biderik onena artzain egitea dala?

Pozik egoan gure otsoa, agotik adurra eriola. Arrezkero aberatsa

zan, eta egunean ardi oso bat iruntsiarren-bere, ba-eukon oraindiño zer jan. Baiña ederto baiño edertoago gauzak egin nairik, ardiak batuteko, artzaiñak legez txistu egin bear ebala otu jakon. Eta agoa zabaldurik, txistu ordez, orroi ikaragarri bat bota eban, inguruetako atx guztiak dardar eragiteko bestekoa.

Zetan esan-bere ez, ardi guztiak, artzaiña ta txakurrak bertan bera itzartu zirean.

—Ze deabru dogu au?— diño artzaiñak, bere burua billoixik eta otsoa bere soñekoakaz jantzita ikusirik.

Baiña jantzi azpitik otsoaren buz-tana agiri zala konturatu zanean, bildur barik bertara joan eta otsoari makillea kendu eutsan.

—Eutsi, otso zarra, eutsi! Eta makillakadaka, zinpi zanpa eio eban.

Ardiak, mendirantz igesi joan zirean. Eta txakurrak, zaunkaka ta aginka otso gaixoa odoletan eta burua makurturik itxi eben.



Orixe berori jazoten jake, goiz edo berandu, kristiñau itxurea bakarrik dauken andra-gizoneri.



# Jokin bog...

(Itaunketak bigarren orrialdean)

1.—Aonexetarako da Azken Oleaziñoa: Sazerdotearen errezuen eta Orio Santuagazko igurtziaren bitartez, eriotzako peligruan dagozan gaixoeri arimako osasuna emoteko, ta konbeni bada, gorputzekoa-bere bai.

2.—Santiago Apostoluaren Epistolatan berba egiten dau Eskritura Santuak Azken Oleaziñoaren gainean. Auxe diñosku Santiago Apostoluak: "Zuetariko norbait gaixorik dagoanean, deitu eiozue sazerdoteari; eta onek otoitz egin bei gaixoaren alde, Jaunaren izenean Orio Santuagaz igurtziten daben bitartean. One-lan, fedezko otoitzak sendotu egingo dau gaixoa, eta Jaunak obarantz eragingo deutso; eta pekatuak badauko, parkatu egingo jakoz."

3.—Untziño Santuak sendotu egiten dau arimea, eriotzako orduan bere arerioen kontra ekiteko; eta bide batez, grazia geitu, pekatuak parkatu eta pekatuen oste txar guztiak kendu.

4.— a) **Ez da egia.** Eriotzako arriskuan egon ezker, edozein gaixori emon bear jako ainbat ariñen Azken Oleaziñoa.

b) **Ez da egia.** Sakramentu onek, geienetan beintzat, ez dau naitanaiez, millagru moduan, osasuna emoten. Ori barik, naturalkiro kentzen deutso indarra gatxari eta osatuten dau gaixoa.

Orregaitik, persona bat txarto txarto balego, eta bera osatuteko millagru bat bearrekoa balitz, Azken Oleaziñoak ze leuskio, geienetan

beintzat, osasunik emongo. Ori dalata, ainbat ariñen artu bear da Untziño Santua, osasuna guztiz galdu arte egon barik.

5.—**Ez deutso balio.** Persona orrek ezin eiken Sakramentu ori artu, Untziño Santua eriotzako arriskuan dagozanentzako bakarrik dalako.

## KURUTZEGRAMA N.º 17

	1	2	3	4	5	6	7	8
I								
II								
III								
IV								
V								
VI								
VII								
VIII								

**Ezkerretik eskoira:** 1. Bageunko.—2. Numerua. Ganaduaren azpigarritarako izaten da.—3. Numerua. Asikerea euki.—4. Ortuak eta landak zarratuteko izaten da. Konsonante letrea —5. Konsonante letrea. Gaiztoa ez dana.—6. Mingotsaren kontrakoa. Usain txarra (atzekoz aurrera).—7. Argeliako itxasertzeko erria. Domau.—8. Suge bat. Konsonante letrea.

**Goitik beera:** 1. Egongo baziña.—2. Lotan egiten da. Kolore bat.—3. Ogia egiteko garaua. Urte asko daukona.—4. Zoroa. Leku onetara.—5. Konsonante letrea. Bokal letrea.—6. Debalde. Zentzuna.—7. Falta. Beroaren kontrakoa.—8. Min egiten deuskuenean esaten dogu. Ni orain izan.

8. Al. Nalz.  
Ona.—5. N. U.—6. Doan. Sen.—7. Uts. Ots.—  
gor.—2. Ames. Ori.—3. Gari. Zar.—4. Ero.  
Ezi.—8. Ztrann. Z. **Goitik beera:** 1. Bazer-  
Est. N.—5. N. On.—6. Gozo. Ais.—7. Oram.  
Bagednu.—2. Amarr. Ota.—3. Zero. Ast.—4.  
**AZALPENA.** Ezkerretik eskoira: 1.